

Banakako izar-kopururik handiena behatu dute Dragoiaren Arkua galaxian

Nazioarteko astronomo-talde batek banakako 40 izar baino gehiagoren argazkiak atera ditu, urruneko unibertsoan. Hain zuzen, haien argiak, Lurrera iristeko, unibertsoaren adinaren erdia behar izan du; alegia, ia 6.500 milioi argi-urte. EHUⁿ eta DIP^{Cn} lanean diharduen Tom Broadhurst Ikerbasqueko ikertzailea izan da taldeko partaideetako bat, eta [ikerketaren emaitzak *Nature Astronomy* aldizkarian argitaratu dira](#).

NASAn James Webb Teleskopio Espazialarekin (JWST) egin dute behaketa, eta, haren sentsibilitate handiari esker, 44 izar identifikatu dituzte. Ikertzaileen esanean, aurrekaririk gabeko lorpena izan da, inoiz ez baitira hainbeste izar identifikatu banaka.

Taldeak Dragoiaren Arkuaren barruko izar bakoitzaren koloreak aztertu eta izar horietako asko supererraldi gorriak direla egiaztatu dute, Orion konstelazioan bizitzaren azken aldietan dagoen Betelgeuseren antzekoak. Aurreko aurkikuntzetan, Rigel eta Deneb bezalako supererraldi urdinak identifikatu ziren nagusiki, gaueko zeruan dauden izarrik distiratsuenetakoak. Ikertzaileen esanetan, izar-moten arteko desberdintasun horretan, nabarmentzekoa da JWSTek uhin infragorrien luzeretan duten gaitasuna.

Hurrengo behaketetan, Dragoiaren Arkuaren galaxian magnifikatutako izar gehiago aurkitzea espero dute, baita materia ilunari buruzko galdera batzuen



Dragoiaren Arkua, Hubble teleskopioaren bidez. Orain, 44 izar identifikatu dituzte banaka, JWSTren bidez.
ARG.: NASA.

Astrofisikariek JWSTek Dragoiaren Arkua deritzon galaxia bati ateratako argazkiak ikuskatzean aurkitu dituzte aipatutako izarrek, Abell 370 izeneko galaxia-kumulu masibo baten atzean. Izan ere, grabitazioaren eraginez, grabitazio-lentearen efektua deritzona gertatzen da: atzean dagoenaren (Dragoiaren Arkua) argia deformatu egiten da, eta ohiko espiralaren ordean (horixe baita efektu hori gabe ikusiko litzatekeena), proportzio kosmikoak dituen korridorea ikusten da.

erantzunak jasotzea ere. Hain justu, Tom Broadhurst, George Smoot Fisikako Nobel sariduna eta Paloma Morillo doktoregoko ikaslea partaide dituen EHUko taldeak oraintsuko artikulu batean azaldu duenez, izarrek Dragoiaren Arkuan dituzten posizioek argi utzi dute materia iluna uhinen antzekoa dela, eta ez partikula astunen antzekoa. ●